

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko martxoaren 1eko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez Amurriko 2019ko jaietako kartela eta kontrazala egiteko lehiaketaren deialdia onartzen baita

BDNS(Identif.): 448132

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Erakunde esleitzaila: Amurriko Udala.

Bulegoa: Kultura Arloa.

Onuradunak: Edozein pertsona fisiko kartelerako, eta 2005. urtean edo urte horretatik aurrera jaietako edozein pertsona, kontrazalaren lehiaketarako.

Betekizunak eta horiek aurkezteko moduak: Kartelek ez dute identifikaziorik izango. Atzeko aldean idatzitako goiburua bat baino ez. Kartelarekin batera gutun-azal itxia aurkeztuko da eta haren kanpoko aldean kartelaren goiburua bera. Barruan, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Xedea: Deialdi honen xedea da Amurriko 2019ko jaietako kartela eta jaietako liburuaren kontrazala ilustratzea.

Oinarri arautzaileak: Amurriko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko martxoaren 1ean onetsi zituen, eta ondoren haien testu osoa 2018ko martxoaren 7ko ALHAOn, 28. zenbakian, argitaratu zen.

Zenbatekoa: Deialdiaren lehiaketak sari bakarra dauka: zortziehun euro (800 €) jaietako kartelaren lehiaketa irabazten duenarentzat. Gastua 33478.480 partidatik egingo da.

Zenbateko horretan egoki diren atxikipenak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz.

Oinarriak aztertzea, argibideak eta agiriak: Amurriko Udaleko Kultura Arloan (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea, 945891161 telefonoa), eta Amurriko Udalaren webgunean, deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eta kartelak aurkezteko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskaerak aurkezteko tokia: Lanak Amurriko Kultura Etxean (Landako kalea 8, 01470) aurkeztuko dira. Halaber, posta ziurtatu bidez, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/1995 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabilita aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak aurkezteko epea: Lanak 2019ko apirilaren 1etik 17ra bitartean aurkeztuko dira. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren lanak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak: Kartelarekin batera gutun-azal itxia aurkeztuko da eta haren kanpoko aldean kartelaren goiburua bera. Barruan, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

Jakinarazpen modua: Lehiaketaren ebazpena posta arruntez jakinaraziko zaie parte hartzaileei; eta Amurrioko udaletxeko iragarki taulan eta web orrian ere jakinaraziko da.

Ebazteko epea: hamabost egun.

Ebazpena: Kartel irabazlea diseinuaren eta artearen munduan aditu diren hiru pertsonen osatutako epaimahaiak aukeratuko du.

Errekurtsoak: Ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpena ematen denetik bi hilabeteko epean. Nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena ematen denetik hilabeteko epean.

Amurrio, 2019ko martxoaren 14a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA